



## BELATSARENA

BERETERRETXEK OHETI  
NESKATUARI EZTIKI:

“ÄBIL ETA SO EGIN EZAN GIZONIK DENEZ AGERI.”

NESKATUAK BERHALA  
IKHUSI ZIAN BEZALA;  
HIRUR DOZENA BAZABILTZALA BORTHA BATETIK BESTERA.

JAUN KUNTIAK BERHALA,  
TRAIDORE BATEK BEZALA;  
“BERETERRETX, AIGÜ BORTHALA; ÜTZÜLIREN HIZ BERHALA.”

“ÄMA, INDAZÜT ATHORRA,  
MENTÜRÄZ SEKÜLAKUA!  
BIZI DENAK ORHIT ÜKHENEN DÜ BAZKO-GAIHERDI-ONDUA.”

## OI AMA ESKUAL HERRI

ANAIA ETXEN DA EZKÜNTÜ  
BÜKATÜ NIZ OAIN JOAITERA  
ENE OPILAREN EGITERA  
PARISERAT BANÜAZÜ.

OI AMA ESKUAL HERRI GOXUA  
ZUTANDIK URRUN TRISTE BANÜA  
ADIOS GAIXO ETXEN DENA  
ADIOS XIBERUA.

PARISEKO BIZITZIA  
LAN KOSTÜZÜRIAZ BAGIAZÜ  
BENA BERANTZEN ZÜTADAZÜ  
ZURE BERRIZ IKUSTIA.

OI AMA ESKUAL HERRI...



## JAUN BARUAK


JAUN BARUAK ASPALDIN XEDERAK HEDATÜ ZÜTIN,  
TXORI EUJER BAT HATZAMAN DIZÜ PAUBEKO SEROREN  
[KOMENTIN,  
ORAI HAREKIN BIZIREN DÜZÜ ASPALDIAN GOGUN BEITZIN.

XEDERA BALIZ HALAKO MERKATIETAN SALTZEKO,  
ZIBERUAKO AITUNEN SEMEK EROS LITZAZKIE ORO,  
HALAKO TXORI EUJERTO ZUNBAITEN HATZAMAITEKO.

IGARAN APIRILAREN BÜRIAN, ARMADAREN ERDIAN,  
ZÜNTÜDAN BIHOTZIAN, ARMAK ORO ESKIAN;  
PRESENT ESPIRITIAN, MANKA BESUEN ARTIAN.

JAUNA MAITE BANAIZÜ, ERRAITEN DÜZÜN BEZALA,  
KITA EZAZÜ, KITA EZAZÜ ERREGEREN ZERBÜTXÜA  
ETA MAITA HERRIA, ÜKEN DEZADAN PLAZERA.





## MARIA SOLT ETA KASTERO

MARIA SOLT ETA KASTERO  
BI AMOROS ZAHAR BERO.

HIRUROGEI-HAMARNA URTETAN HARTU DIE AMORIO  
KASTERO JELOSTU GERO MARIA SOLT EZARI KANPO.

MARIA SOLTA DUA NIGARREZ  
IZORRA DELA BELDURREZ.

BARNETS-BORDAKO ANDERIAK KONTSOLATU DU ELEZ  
EMAZTE ZAHARRIK OKUPU AGITZEN EZTELA EZ.

MARIA SOLTEK ARRAPOSTU  
SANTA ELISABET BADUZU  
SAINTU ZAHAR BATEGANIK OKUPU AGITU DUZU  
KASTERO ERE BADA SAINTU, HALA NIZAN BELDUR NUZU.

KASTERO EZTUZU SAINTU  
SOBERA BURHAUTI DUZU.  
ELIZALAT JUAN ETA TAHARNAN EGOITEN DUZU  
KASTERO DENAGATIK SAINTU MARIA SOLT ANTZU ZIRA ZU.

## ATARRATZEKO GAZTELUKO KANTUA

OZAZE JAURGAINIAN BI ZITROIN DORATU  
ATARRATZEKO JAUNAK BATA DU GALDATU;  
UKEN DU ARRAPOSTU EZTIRELA HUNTU,  
HUNTURIK DIRENIAN BATTO UKENEN DU.

PORTALIALA JUAN ZITE, AHIZPA MAITIA,  
INGOITI HORRA DUZU ATARRATZEKO JAUNA,  
OTOI ERRAN IZOZU NI ERI NIZALA,  
ZAZPI EGUN HOIETAN OHIAN NIZALA.

KLARA, ZUAZA ORAI SALAKO LEIHORA,  
IPARRA ALA HEGUA DENEZ JAKITERA,  
IPARRA BALINBADA GORAINZI SALARI,  
ENE KORPITZAREN TXERKA JIN DADILA SARRI.

AMA, JUANEN GIRA ORO ELKARREKI,  
ETXERAT JINEN ZIRA XANGRI HANDIREKI,  
BIHOTZA KARGATURIK, BEGIAK BUSTIRIK,  
ETA ZURE ALABA TUNBAN EHORTZIRIK.

AMA, SALDU NAUZU BIGA BAT BEZALA,  
BAI ETA DESTERRATU, OI ESPAÑALA,  
AITA BIZI UKEN BANU, AMA, ZU BEZALA  
ENUNDUZUN EZKUNDUREN ATARRATZEKO SALALA.

## OI ZUBEROA

OI GURE HERRIA  
ZER HINTZEN ETA NON HAGO.  
ZAZPI MENDEKO GAUEAN  
ZANPATUA  
ITOA  
ZIKIRATUA  
AHULDUA  
ETA  
OHITUA  
BORTXARA  
ALABEHARREZ  
EZ OTE DUKA JADA KEMENIK  
HIRE HATSA SENDOTZEKO?



OI ZUBEROA  
BIZITZAREN AMETSA,  
NEGARRA DAGIT SAKONKI,  
HIRI SO  
NERE HATSA DUK  
BIHURTZEN AUHENA.  
OI ZUBEROA  
ZER HINTZEN ETA NON HAGO.

## ZUBEROA I

ZUBEROA, ZUBEROA  
EMAKUME EDO IGALI  
IZPILLUEN IZPILLU.

EZ DAKIT ZURE BAITAN ERRESIÑOLAREN BAT LO OTE DATZAN,  
EZ DAKIT ZURE BELARDI-AZPIAN INOR PITXIAK LANTZEN  
ARI OTE DEN, ASTIRO.

EZ DAKIT ERE ARTO-SAILLIK BA OTE DUZUN,  
EZ ETA ZEIN DEN ERE ZURE SAGAR-AZALEN KOLORE.

NOIZ DAGI EURI ZUBEROAN?  
NOLA DUTE BEGIRATZEN EMAKUMEEK ZUBEROAN?  
NOLA DA HILTZEN ZUBEROAN? NOLA?

ZUTAZ EZ DAKIT DEUS ERE  
EZ ZAITUT EZAGUTZEN.  
BAKARRIK, ZURE KANTAREN BAT ENTZUN DUT  
ETA HORREGATIK ZAITUT MAITATZEN,  
HORREGATIK, BAKARRIK, NAUZU ZURE ALDE.

## MATALAZ

DOLU GABE HILTZEN NIZ,  
BIZIA XIBERUARENTAKO EMAITEN  
BAITÛT.

AGIAN, AGIAN, EGÛN BATEZ  
JEIKIKO DIRA EGIAZKO XIBERUTARRAK,  
EGIAZKO ESKUALDÛNAK,  
TIRANO ARROTZEN HILTZEKO.



## ZUBEROA II

ZUBEROA,  
GURE HERRIAREN HONDAMENDI GARRATZAREN EREDU  
JAINKOZKO MUNDUA,  
ZURE AZKEN HATSETAN IHAUTERIARI ZARA LOTZEN.  
IHAUTERI,  
BIZITZAREN SOKA-DANTZAN LEHENBIZIKO JAUZI  
NATURA ETA BIZI-INDARREN ERABERRITZE KOSMOZKOAN  
BIZI SINESTEAREN OINARRI.

ZUBEROKO HERRIA,  
HONDATZEN ETA BERSORTZEN DIREN NATUREN ARTEKO  
ETEN GABEKO BORROKAN  
BETI GARAILE.

ZUBEROKO HERRIA,  
LURREZKO JAKINDURIA  
JATORRIZKO BIHIA,  
MUNDUKO ARDATZA  
GURE ARDATZAREN MUNDUA,  
ZUK ASMATU DITUZU KANTA ETA DANTZA  
KLASIKO-AURREKOAREN ETA BETIKOTASUNAREN ORANTZA...

JINKOAK BENEDIKA ZAITZALA.

## NERE HERRIKO NESKATXA MAITE

NERE HERRIKO NESKATXA MAITE  
AHOZKO LOREZ ZAITUT GAUR LAZTANTZEN  
ITSASO GARDEN, LUR GOZOKO LANDARE,  
KRESALAREN USAIN, ZERU KOLORE  
NERE BIHOTZAREN TAUPADEN HOTSEZ  
ZURE GRAZIA DUT KANTATZEN.

BIHOTZ MINBEREN EGUNSENTIA  
HERRI SUFRITUAREN LAMIA  
IPUIN ZAHARREN PIPER ETA EZTIA  
ERREKA GARBIEEN KANTU BITXIA  
UDAZKEN LIZUNEZ ZAUDE JANTZIA  
IZAR ZERUTARREN IRRIA.

LANBRO ARTETIK ITSAS GELDIRA  
LEUNKI ZOAZEN TXORI AIROSA  
AMODIOZKO SENTIPENAREN HATSA  
ZURE EZPAINETAN LORATUZ DOA  
GOIZEKO IHINTZETAN BELARDI ZERA  
EGUZKITAN ZILAR DIZDIRA.



## AMERIKARA NOA

AMERIKARA NOA NERE BORONDATEZ,  
HEMEN BAIÑO HOBETO IZATEKO USTEZ;  
ASPERTUA BAINAGO HEMENGO IZATEZ,  
ADIOS AITA ETA AMA ONDO BIZI BITEZ.

LEHENAGO ERE SEME BAT BADIT AMERIKAN,  
ORAIN DELA SEI URTE JOANA HEMENDIKAN;  
BALDIN TOPATZEN BADEK HAREN BIDERIKAN,  
ESANAKIOK AITA BIZI DELA ORAINDIKAN.

KAFIA HARTUTZEN DET EGUNIAN BI ALDIZ,  
BAITA PASIATU ERE NIK NAHI HAINA ZALDIZ;  
JAN EDANAREN FALTIK EZ, OSASUNA BERRIZ...  
AITA BIZIMODU HAU DONOSTIAN IZAN BALITZ.

## BALEAREN BERTSOAK

MILLA BEDERATZIEUN DA  
LENENGO URTEAN  
MAIATZAREN AMALAU  
GARREN EGUNIAN  
ORIOKO ERRIKO  
BARRAREN AURRIAN,  
BALIA AGERTU ZAN  
BEATZIK ALDIAN.

AUNDIA BAZAN ERE  
AZKAR IBILIAN.  
BUELTAKA AN ZEBILLEN  
JUN DA ETORRIAN.  
ONDARRA ARROTUAZ  
MURGIL IGARIAN.  
ZORRIAK ZEUZKAN ETA  
AIEK BOTA NAIAN.

IKUSI ZUTENIAN  
ALA ZEBILLELA  
BERIALA JUN ZIRAN  
TREÑERUEN BILLA.  
ARPOI TA DINAMITAK  
ETA SOKA BILLA.  
AGURO EKARTZEKO  
ETZAN JENDE ILLA.

BOST TREÑERO JUAN ZIRAN  
PATROI BANAREKIN.  
MUTIL BIZKOR BIKAIN  
GUZTIZ ONAREKIN.  
MANUEL OLAIZOLA  
ETA LOIDIREKIN,  
URANGA, ATXAGA TA  
MANTEROLAREKIN.

BALIAK EGINDAKO  
SALTO TA MARRUAK  
ZIRAN IZUGARRI TA  
IKARATZEUAK.  
ATZERA EGIN GABE  
ANGO ARRISKUAK  
ARPOIAKIN IL ZUTEN  
AN ZIRAN ANGOAK.

BOST TXALUPA JIRAN DA  
ERDIAN BALIA  
GIZONAK EGIN ZUTEN  
BAI NAIKO PELIA.  
IKUSI ZUTENIAN  
IL EDO ITOA  
LEGORRETIKAN BAZAN  
BIBA TA TXALOA.

AMABI METRO LUZE  
GERRIA AMAR LODI  
BUZTAN PALA LAU ZABAL  
ALBUETAN PALA BI  
EZPAÑETAN BIZARRAK  
BESTE ILERA BI  
ORRAZIAK BEZALA  
AIN ZEUZKAN EDERKI.

GORPUTZEZ ZAN MILLA TA  
BERREUN ARRUA.  
BESTE BERREUN MINGAIN  
TA TRIPA BARRUAK.  
GUTXI JANEZ ETZEGON  
BATERE GALDUA  
TIÑAKO SEI PESETAN  
IZAN ZAN SALDUA.

GERTATUA JARRI DET  
EGIAREN ALDE.  
AU ORRELA EZ BADA  
JENDIARI GALDE.  
BIOTZEZ POZTURIKAN  
ATSEGINTSU GAUDE.  
GORA ORIOTARRAK  
ESAN BILDUR GABE.



## GAUA ETA NI

ZU BEZELAKOA NAIZ, OI GAUA;  
ILLUNA ETA BILUZIA. ENE AMETSEN GARRETAN  
DAGOEN BIDEAN BARN A NOA ETA ENE  
OINAK LURRA UKITU OROTAN EGUNDOKO  
HARITZA SORTZEN DA.

EZ, ZU EZ ZARA NI BEZELAKOA, OI EROA;  
HONDARREAN EGIN HATZA NEURTZERA  
ORAINDIK ERE ATZERA BEGIRATZEN BAIT DUZU.

ZU BEZELAKOA NAIZ, OI GAUA:  
IXILLA ETA SAKONA. ETA ENE BAKARDADEAREN  
BIHOTZEAN BADA ERDITZEN ARI DEN  
JAINKOSA BAT, ETA BERTAN ZERUA ETA  
INFERNUA BAT EGITEN DIRA.

EZ ZU EZ ZARA NI BEZELAKOA, OI EROA;  
ORAINDIK ERE OINAZEAK IKARATZEN BAIT ZAITU  
ETA OSINAREN DEI-KANTAK IZITZEN.

ZU BEZELAKOA NAIZ, OI GAUA:  
BASA ETA IKARAGARRIA; ENE BELARRIAK  
MENPERATU HERRIEN GARRAXIZ ETA AHAZTU  
LURREN HASPERENEZ BETERIK BAIT DAUDE.

EZ, ZU EZ ZARA NI BEZELAKOA, OI EROA;  
ORAINDIK ERE ZURE NI TTIPIA LAGUNTZAT  
DAUKAZU ETA EZ DUZU ZURE NI HAUNDIAREN  
ADISKIDE IZATEA LORTZEN.

ZU BEZELAKOA NAIZ, OI GAUA:  
BIHOTZ-GOGORRA ETA BELDURGARRIA;  
ENE BULARRA GARRETAN DAUDEN  
ITSASONTZIEK ARGITUA BAIT DAGO  
ETA ENE EZPAINAK HILDAKO GUDARIEN ODOLEZ BUSTIAK.

EZ, ZU EZ ZARA NI BEZELAKOA, OI EROA;  
ORAINDIK ERE ZURE BIZKI-ARIMAREN  
GRINAK DAUZKATZU ETA EZ ZARA  
BIHURTU ZUHAURREN LEGE BAKARRA.

ZU BEZELAKOA NAIZ, OI GAUA:  
GATZ ETA PIPER ENE ITZALAREN BABESEAN  
LO DAGOEN URA ARDO BIRJIÑAZ MOZKORTUA  
BAIT DAGO ORAI, ETA JARRAITZEN DIDAN  
EMAKUMEAK BEKATU EGITEN DU ALAIKI.

EZ, ZU EZ ZARA NI BEZELAKOA, OI EROA;  
ZURE ARIMA ZAZPI TOLESEKO OIHALETAN INGURATUA  
BAIT DAGO ETA EZ DARAMAZU BIHOTZA ESQUETAN.

ZU BEZELAKOA NAIZ, OI GAUA:  
JASALE ETA GRINATSUA, ENE BULARREAN  
ZIMELDU MUSUZKO HIL-ATORRETAN  
HAMEKA MAITALE HIL BAIT DAUDE HOBIRATUAK.



## ZENBAT GERA?

ZENBAT GERA?

LAU, BAT,  
HIRU, BOST, ZAZPI?

ZER EGIN DEGU?

EZERREZ.

ZER EGITEN DEGU?

ALKAR JO.

ZER EGINGO DEGU? ALKAR HIL?

GURE ASMOAK, ESPERANTZAK,  
HERRIA, ASKATASUNA,  
JUSTIZIA, PAKEA,  
EGIA, MAITASUNA...  
MITOAK, HITZ HUTSAK?

ZENBAT GERA?

LAU, BAT,  
HIRU, BOST, ZAZPI?

ZER EGIN DEGU?

EZERREZ.

ZER EGITEN DEGU?

ALKAR JO.

ZER EGINGO DEGU? ALKAR HIL?  
HORI EZ! HORI EZ! HORI EZ!



## EUSKAL PIZKUNDEA

GAU LUZEA GAU LATZA  
GAU IZAR GABEA,  
NEKEZ GENDUN IKUSI  
AREN AZKENTZEA.  
GAUARDIAN IL ZAIGU  
AMONA GUREA,  
ESKU GOGORTUETAN  
DAUKA GURUTZEA.

GURE SUKALDE ZARRA  
ETXE PIZGARRIA  
BART LAGUNARTE GOXO  
GAUR BAKAR GORRIA  
LEN EPELA JARIO  
ORAIN OTZ LARRIA.  
AMONAREKIN BATEZ  
DEZU UTZI BIZIA.

AMONAREN ALKIA  
AGO SUTONDOAN  
AREN IPUIRIK ALDEK  
IK JASO GOGOAN?  
IK EZ? LARATZAK? EZTA...  
EZ USTE GOZOAN  
GEUNDEN TA GURE POZA  
BETIKO DA JOAN.

ORDUAN BELAUNIKATU  
NINTZAN AUTS GAÑERA.  
ARK GORDETAKO SUA  
ZU ERE IL OTE ZERA?  
AUTSA PITINKA URRATU  
NUAN, BELDUR BERA.  
SUA BIZIRIK DAGO  
GALDUAK EZ GERA.

GEROZTIK ARI NAZU  
AUTS ZAARRAK ASTINTZEN  
AITON-AMON GUZTIEN  
IPUIAK JASOTZEN  
ERRIAREN PITXIAK  
MAGALEAN BILTZEN  
EZ BAITA IL GURE ERRIA  
ZUTITU GAITEZEN.

IL EZ DA TA EZTA ILKO  
GUK EZ BADEGU NAI.  
BIZI IRRIKAZ ZEGOEN  
GURE MAITASUN ZAI,  
AREN SUSPER BEARREZ  
GOAZEN NORA NAI.  
PIZKOR URRRA DITZAGUN  
MALKAR ETA ZELAI.

## **TXORI TTIKIA**

TXORI TTIKIA NINTZELARIK  
ESAN ZIDATEN,  
KAIOLAN BIZITZEKO  
SORTUA NINTZELA,  
GERO ARRANO BIHURTU NINTZANEAN  
KAIOLA HAUTSITA ALDEGINGO  
NUEN BELDURREZ,  
LIBRO NINTZELA SINISTARAZI  
NAHI ZIDATEN,  
HORREGATIK IRIKI ZIZKIDATEN ATEAK  
EGIN NEZAN HEGAZ,  
BAINAN LUZE GABE OHARTU NINTZEN  
HANKA HARKAITZ BATI  
LOTU ZIDATELA  
KATE MOTZ ETA ASTUN BATEZ.



## **URRUNDIK HELDU NAIZ**

URRUNDIK HELDU NAIZ LUZE IBILIZ,  
BIDEZ BIDE ETA BIDETAKO  
HAUTSAK GARIA SORTARAZI DU  
ENE OINETAKO BEHATZ ARTETIK...

ENE BURUA UNTZAZ ARI DA ESTALTZEN,  
ESKUETAKO BEHAZTETAN  
MADARIONDOAREN HOSTO XAMURRAK  
LORATZEN...

BIZKARREAN...  
ORTZIEN BARNAN...  
MAGALI MIKATZEN KIMUAK  
TXERTATZEN ARI ZAIZKIDALARIK...  
SAN MIGELETAN... ITSASOA... NABARRA  
LUDIA TTIPITZEN DUEN ITXASOA...

ENE BAITAN URRIAREN EGOKAIZAREKIN BATERA,  
AZI BUSTI ETA EMANKORRA  
ARI DU...

ZILEGI BEKIT ADISKIDE, ESATEA, PENTSATZEA  
HAREK EZ DU GOROLDIO BAIZIK SORTUKO  
GURE HARRIZKO BURUETAN...

## LORETXXOA

MENDIAN LARRARTEAN  
AURKITZEN DA LORETXXO BAT  
AURREAN UMETXXO BAT  
LORETXXOARI BEGIRA.

LOREAK ESAN NAHI DIO  
—UMETXXO ASKA NAZAZU,  
JAIO NAIZ LIBRE IZATEKO  
ETA EZ LOTURIK EGOTEKO.

UMETXXOAK IKUSIRIK  
LOREA EZIN BIZIRIK  
ARANTZAK KENDU NAHI DIZKIO  
BIZI BERRI BAT EMAN,

ORDUAN IZANGO BAIT DU  
INDARRA ETA KEMENA  
ORDUAN EMANGO BAITU  
UGARI BERE FRUITUA.



## AMODIOZKO POEMA

GU, DANTZARI ZUBEROTARRAK GINEN ESTUERDOEN KORTEAN  
ETA EZ GINEN HAIEN HIZKUNTZAZ MINTZATZEN  
HORREGATIK, EGUN GUZTIZ, OIHUZ GENUEN DANTZATZEN.

HAIEN ONDOAN INGURATUTAKO HEGALUZE SALDO BAT GINEN  
ETA ZUK AUTOBIDEKO NESKATXA MAITEA  
EGUNSENTI-ARTE KANTATUZ LAZTANDU NINDUZUN,  
URRIKO GAU EPEL BATEAN HARRAPATUTAKO EINARA NEREA.

EGUN HARTARA ITZULI NAHI NUKE  
EMEKI-EMEKI  
ITSASOARI BEGIRA, BEGI ITXIZ,  
JIRATUTAKO ITZULIAN BARRENA.

NEURE BEHATZEZ GURE HERRIKO BELARRA BILLATZEN,  
HAIZEAN GURE HERRIAREN ERORTEA.  
ZARAUZKO ZINEETAN BEGIRADA TRITTEKO ETA  
BURUAN ALUMINIOZKO XEDERADUN NESKATXA BILLATZEN,  
GURE HERRIKO PLAZETAN OTSAGIKO "BOBOA"  
PELIKULA MUTUETAKO EREDUAK  
JAPOIKO PORTABIOIETAKO LUMEZ AZTANDU DITUGU,  
TIBUROIEN HORTZ ETA HAGINEN BARRENA IBILI BEHAR IZAN DUGU,  
GEURE SEME-ALABAK ITSAS-ERTZEAN EDUKI DITUGU  
AINGIRA ETA ITSAS-TRIKUEN ESKUMENEAN.  
ODOLEZKO OHETAN LO DUGU EGITEN  
ETA  
ATZERRIRATZEN GAITUZTEN TRENETAKO  
KOMUNETAN NEGAR EGITEN.

BAINAN EZ IZU, MAITE,  
GURE ETXERA INOR EZ DATOR ORAIN.  
GORBEIAN URTZEN ARI DEN ELURRA DA  
IBAIK HARROTUAK JAUSTEN DIRA,  
ITOKO AAL DITUZTE?



### ASKATASUNAREN SEMEEI

HERRI NEKETSU HONTAN  
POLBORAZKO LOHITARA  
EUSKAL SEMEAK BOTEAZ,  
TRINTXERETAKO NEKEAZ  
GURE BARNE MUIÑAK HEZITUAZ,  
UKATZEN ZAIGUN IZATEAREN  
FUNTSA LURREAN ERROTUAZ  
MENDEZ MENDE BAGOAZ.

GURE BEGI LEGORRETAN  
ASKATASUN EGARRIZ  
NAHIGABEA HAUNDITZEN,  
ETSIPENAREN AURREKO  
ITSUMENEAN,  
IZAR GIDARIRIK EZ.

EZ DATOR GUGANA  
JAINKOSA MARIREN  
URREZKO ILEEN DIZDIRARIK.  
EZ ETA, ERREKA GARBIETAN  
LAMIEK KANTATUTAKO  
DOIÑU LILURAGARRIRIK.

EZ OTE IÑOIZ  
BEREN URREZKO ORRAZEAZ  
SASI NAHASI HAU ORRAZTERA JEITSIKO?  
EZ OTE GAITU  
SUGAR ZERUTARRAREN SUMINDURAK  
BERE SEME JAUN ZURIAREN IKUITUAZ  
TXERTATUKO?

HOR DIRE NUNBAIT MAITE,  
GURE ERREGE-ALABEN  
SETAZKO JANTZI ZURIAK  
HOR NUNBAIT, IZAN ERE  
ORAINDIKAN USAINDU GABEKO  
LORE FRESKOAK,  
ASKATASUNAREN SEMEEN  
PARABISUAN.

AMODIOZKO KONTUAK  
ZILEGI IZANGO ZAIZKIGUNEAN,  
EUSKAL HERRIKO HAURRAK  
BERRIRO ERE EUSKAL IPUIN XARMANTEZ  
LOTARATUKO DIRENEAN.

GURE ARTEKO BEGIRADAK  
ANAIKORRAK EGINGO DIRENEAN.  
GURE IZATEAREN  
ARDATZA SENDOAREN BUELTAN  
GARAIPENEZKO KANTUAK  
ENTZUNGO DIRENEAN...

ORDUAN BAI MAITE,  
GURE LURREKO BELAR GOZOA  
ZURE ETA NERE SOINEAN LIZUN BILAKATUAZ,  
AMODIOZKO MOZKORREAN MURGILDUTA,  
ZORABIOZKO JIRABIRETAN,  
HARAGI DALDARTIEN ATSEDENEAN,  
ASKATASUNAREN SEMEEI DEI EGINAZ...  
GURE MUNDUAREN HASTAPENA  
HANTXE OSATUKO DUT  
ZURE SABELEAN.

## ENTZUN ZAZU

ENTZUN ZAZU ADISKIDE  
KANTU HAU DIZUT ESKEINTZEN,  
ENE BARNE KOLPATU HONTAN  
ZURETZAT DA OLDOZTEN.

NIGAN DUT ZUEN MEZUA  
ZUEN ZERUTIK BILDUA,  
MENDI BELTZETAN BARRENA  
OIHUZ DUJOAN BREIZH ATAQ.

SAINT MALOKO ITSASOAN,  
HERRI BAT NUEN HAUSNARTZEN,  
HAREN KOLKOAN ERROTİK NINTZEN,  
ZUETAKO BAT SENTITZEN.  
ESKUAK ELKARTURIKAN  
LOTU GINEN DANTZETAN,  
ELKARREKIN LANDUKO DUGUN  
BIDE BAT HAN HASI ZAN.

## ZORTEAREN KOLPEAK

ZORTEAREN KOLPEAK JOAZ,  
AMEKA NEGAR

HERRA  
GORROTO

IRRI, DANTZA ETA MALKO  
IRENTSITAKO LUR PUSKA HONETAN  
SUERTATU NAIZ BIZITZAN,  
ETA LURRAK EGIN NAU  
ASEKAITZ  
BIZITZA BIZI NAHI ETA  
EZIN  
ARGIA IKUSI NAHI ETA  
ITSU  
IDUZKIAREN PRINTZAK FEREKATU NAHI ETA  
HOTZ  
AMODIOA URRUPATU NAHI ETA  
MOTZ



HALA ERE ERRAIETATIK DAGIT  
GRINAREN OIHU LATZA  
LAZTASUNAREN HOTSIA  
BIZI NAHIAREN OIHU ETSITUA  
ORAIN ETA HEMEN  
ASE EZINA.

## ORBAIZETAKO ARMA OLAREN KANTUA

ORBAIZETAKO ARMA-OLAREN  
HORMA ZAHARRAK  
SUZKO EKAITZ DARDARTSU GUZIAK  
JAURTIKIAZ JASANIK,  
KONDAIRA URRATU BATEN  
EZAUGARRI BEZALA,  
XOILKI,  
BAKARDADEAN GELDITUAK.

BEREN BAITATIK OHIZKO BIDEAN  
ERREKA IHESKORRA BADOA,  
HARRIEZ MAITEMIN ETA LEHEN-MINEZ  
ETEN GABEKO JOANEAN,  
HEZETASUN ORLEGIZ  
ITZALA JAUNTZIAZ,  
ETA URAREN MURMURIO ZOROAK  
HANTXE DU AURKITZEN  
OIHARTZUNAREN LILURA.

NORTASUN SARKORRA DARION  
YAURE SENDOA,  
GURE NAHI ETA EZINEZKO IZATE HAUTSIAREN  
IRUDI APURTUA,  
ZAHARTUEGIA DAGOEN  
GURE EZ IZATEAREN MINA  
IXURTZEN ARI DEN SABEL SOFRITUA.

ETA EGUNEROKO BAKARDADEAN,  
IXIL IXILEAN,  
NEHOR ERE OHARTU GABEAN,  
SUZKO, BURDINEZKO ETA ZIZPAZKO  
OROITZAPEN ZAHARRAK  
KOPLETAN JALGITZEN DIRA  
HORMETAN ERROAK DITUZTEN ZUHAITZETAN GORA.

... ETA BASOILARRAK KANTATZEN DU  
IRATIKO BASOAN.



## NI OLENTZERO NAIZ

ANAI-ARREBAK  
NI OLENTZERO NAIZ  
NI EUSKALERRIKO OLENTZERO  
ATZOKO ETA BIHARKO OPARIAK DAKARZKIZUENA

TRAIZIOZ HILDAKO KARLISTEN GIBEL FRESKOAK  
GELDIRIK DAUDEN BURNI OLETAKO MAILU ETA HAUSPOAK  
MEATZARIAK, IKAZKIÑAK, BENAKEROAK, ZURGINAK  
ETA OLAGIZONAK  
ESKU ETA AURPEGIAK GARBI  
BEGIAK MALKO  
BIRAOKA ETA ZIKIN  
MENDIARI BEHERA IHESKA KAIETARA  
GARI ETA OIHAL BILLA DOAZENAK,

ESPAÑIAKO OPARI GARESTIA DAKARTZUET  
ESPAÑIÉRATUTAKO BIZKAI MEATZETAKO BURNIA  
ANAI-ARREBAK ADITZEN?

ORAI HEMEN NAGO  
ETXEKO SUTONDOAN ZERRALDO  
ZOMORROAK AHOAN, LERDEA DARIODALA  
HEMEN NAGO  
ORDUNATIKAKO BIDEZ DATOZEN HILTZALLEEI BEGIRA  
ETA IKUSTEN, AI!  
NOLA ARI DIREN GURE KAIK LELO-KABIAK BIHURTZEN

IKUSTEN  
ORAI TXIZPAZ ARMATUTAKO KAIÖEN HEGA ASKEA,  
HEMEN NAGO  
LEONARD COHEN BEZALA SENTITU NAHIRIK  
TRINTXERETAKO GUDARIEI JAUNA DERAMAIÖTEN APEZ  
EUSKALDUN BAT  
IZAN NAHIAN,

A, NI PLAZERRA NAIZ  
NI BASAHUNTZ BAT NAIZ  
JAIZKIBELETIK ITSASORA JAUZIKA DOANA  
ETA GAUEZ BEREN BURUA HILTZEN DUTEN  
EUSKAL OLERKARIEKIN  
ETA HAIEN GORPUTZAK LAZTANDUKO DITUZTEN  
LUPIN ETA LEGATZEEKIN  
LAGA, BAKIO ETA ONDARRAITZEKO HONDARTZETAN  
MINTZATZEN NAIZ  
NI HAUR JAIÖBERRIA NAIZ  
ATURRI IBAIAN BARNA  
ENE ARBASÖEN LAZTAN ETA FEREKEN  
BILLA DABILLENA,

A, NI IZANEN NAIZ  
ENE ALABEN ARTO, MAITALE ETA SEME  
ETA EURI DENEAN  
HAIEKIN JOANEN NAIZ  
BERTSÖAK ENTZUTERA XENPELARRENERA,

IRLANDAKO EMAKUMEOK, EUSKALERRIKO EMAKUMEOK  
GURE ABESTIZ BETEKO DUGU GEROA  
BELARREZKO ARPAREN ITZALEAN EGINEN LOA  
ETA ZUEN SEMEAK BRETOI IZANEN DIRA  
BIZKAIKO EUKALITOEK ANTZERA,

ETA INORK  
INORK EZ DU HONEN BERRI IZANEN  
DEBEKATUA BAIT DAGO GURE AMODIOA,

ETA ORAI BANOA  
ETA BARKA KANTU TRISTE HAU  
BARKA TXORIEKIN BESARKATURIK  
GURE ITSASOKO UR SAKONETAN MURGILTZEN BANAIZ  
AGUR, AGUR ENE  
AGUR, AGUR SEME  
AGUR ITSASO, AGUR GARAZI  
AGUR, AGUR ANAI-ARREBAK  
AGUR ENE  
AGUR SEME  
AGUR ANAI-ARREBAK  
AGUR ENE  
AGUR SEME  
AGUR ENE GUZTIAK.